

# BALEIKE

170. ZENBAKIA, DOHAINIK  
2008ko URRIA

[www.baleike.com](http://www.baleike.com)



## HAITZEN HITZA

Labarrek gordetzen duten historia kontatu nahi dute  
Gorritibereak eta Hilariok dokumental batean

**[æ]** osteopatia  
fisioterapia  
podologia

## OSTEOPATIA eta FISIOTERAPIA

Alexander Odriozola

- Fisioterapia
- Errehabilitazioa

## PODOLOGIA

Eider Lopezegi

- Kirol Podologia: azterketa mekanikoak oinez nahiz korrikal
- Plantila pertsonalizatuak

## DIETETIKA eta NUTRIZIOA

Libe Garmendia



Zure osasuna zaindu nahi baduzu,

zatoz **ALOE** Zentrora

Punta puntako teknologia dugu zure eskura:

Biofoot, Spinal Mouse, ...

**Zerbitzu berria!!!**

Kantauri enparantza, 6 20750 Zumaia

Tel: 943 86 28 78

# ERROTA



# OPIL OKINDEGIÀ

*era fuztietako tarta  
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

# BALEIKE 170

AZALA g. zabaleta



4

baleike+

## Haitzek kontatutako historia

### HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea  
tel.: 943 86 15 45  
e-maila: aldizkaria@baleike.com

### Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte  
e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue, Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet, Peio Romatet eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

### Publizitatea

tel. 943 86 15 45  
gurenda@baleike.com

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
Tirada  
1.000 ale  
Lege gordailua: SS-405/94  
ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

13

txokorik txoko  
ARTEAGATIK  
ARTADIRA

17

argazkitan  
LANBRO ARTETIK  
URREA

21

elkarrizketa  
MIGEL MARI  
LARBURU

26

baleike.com  
WEB GUNE  
BERRITUA

29

gure zumai zarra  
ALIZIA PEREZ ETXABE  
(eta 4)

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA) diruz lagundutakoa



Zumaiko Udala



# HAITZEK KONTATUTAKO HISTORIA

Zumaia eta Deba arteko itsaslabarrek gordetako historia kontatu nahi dute Alberto Gorritiberea zinemagileak eta Asier Hilario geologoak, grabatzen hasiak diren dokumental batean. *Flysch*, *haitzen hitza* du izenburu. Zientzialari onenen eskutik, eta goi mailako errealizazio teknikoarekin, Lurraren historia kontatuko digute, gaur egungo erronkak ulertzeko lagungarri izango zaigulakoan. Grabazioko lehen egunak beraiekin bizitzeko aukera izan du *Baleikek*.



BALEIKE+

Egun batean, geologo en nazioarteko batzarra egin eta gutxira, Albertoren mezu bat jaso nuen posta elektronikoa. Zumaiarra zela, eta harrituta zegoela labarren inguruan komunikabideetan sortutako interesarekin. Bere burua aurkezten zuen mezuan, jakin mina piztu zitzaioela eta gaiari buruz zerbait gehiago jakin nahiko lukeela. Interpretazio zentzura gonbidatu nuen. Irteera egin genuen biok Algorrira, azaldu nion haitzek jasotzen duten historia eta zer nolako garrantzia duten mundu mailan. Orduan, galdetu zidan ea dokumentalirik edo zerbait ba ote zegoen egina gaiaren inguruan. Geologiaren ikuspegitik, nik nekienez behintzat, ezetz. Horrela hasi zen dena”.

*Irailak 29, astelehena. Goizeko zortziak. Kamerak, mikrofonoak, tripodeak eta beste hainbat aparatu Algorri aldean. Egunsentia ari dira grabatzen. Nolako planoak nahi duen azaldu die Alberto Gorritibereak argazkilaria eta kameralariari. Algorriko muturretik mila bider ikusitako paisaiak gaur ederrago dirudi.*

Aita Arronamendi baserrikoa du Gorritibereak. Sakoneta-tik Debara bidean zegoen, ia labarren gainean. Itziarko urak bildu eta garbitzen dituen araztegia egiteko bota zuten. “Paisaia honekiko ditudan oroitzapenak zerikusi handiagoa dute

haitzekin itsasoarekin baino. Niri beti gustatu izan zait haitzetan ibiltzea. Korrika ere askotan egin izan dut labarren gainaldetik. Amildegira hurbiltzen naizenean, beti sentsazio berbera izaten dut: zer txikiak garen. Eta muga bat ere sentitzen dut aurrean dudana bistarekin: inoiz ez gairela kapaz izango hain irudi ederra sortzeko. Nire mugak non dauden jakiteko balio izan dit. Orain, sekula ez zait burutik pasa ere egin zapaltzen ari nintzen harri horiek hainbesteko garrantzia zutenik”.

*Traste guztiak harraldera jaitsi dituzte, kontu handiz, haitzetan labaintzeko arriskuaz ohartuta. Planoa ankeratu du Albertok. Kamera, mikrofonoak, argiak... Dena prest. Klaketak eman du agindua: “Hasi grabatzen”. Asier Hilariok bartu du hitza. Aurrean, Jose Antonio Arz geologo nafarra du. Algorrin bertan egin dituen ikerketen emaitzak azaltzen hasi da, eta hausnarketa ere egin du: ziztu bizian bizitako mundu honen aurrean, geologiak denbora erlatibizatzen laguntzen duela, Lurraren erlojuak milioika urte dituela, eta gizakiok hain garrantzitsuak iruditzen zaizkigun gertaerak hutsaren hurrengo direla. Gizakiari apaltasuna jaitza zaiola.*

“Oso erraz adostu genuen nolako dokumentala egin nahi genuen. Batetik, oso garbi genuen haitz hauek sekulako his-




**Lehen grabaketa eguna: goizean Jose Antonio Arz elkarrizketatu dute Algorrin; eguerdian, Ignacio Arenillas Itzurunen.**

toria dutela kontatzeko eta merezi duela ahalegina egitea. Bestetik, milioika urteko historia horrek gaur egun munduak dituen zenbait erronka –klima aldaketa, esate baterako– ulertzeko balio dezakeela. Horrez gain, haitz hauen garrantzi zientifikoa mundu mailakoa denez, neurri bereko produktua egin nahi genuela, goi mailakoa: zientzialari onenak nahi gienuten edukiari sinesgarritasuna emateko, eta zinema munduan esperientzia handia duen lantaldea estetikoki produktu bikaina lortzeko”.

*Algorritik Itzurungo bondartzara. Eguzkiak ederki berotzen du, eta Ingalaterratik etorritako familia batek azala gorritzen jarri du, Itzuruntzi aldeko eskaileraren alboan etzanda. Albertok harrizko gandarrean elkarriketatuta nahi du Ignacio Arenillas geologoa. Asier burbildu da turistengana eta, mesedez, lekua libratzeko eskatu die. Entrenimendua ziurtatuta dutela ikusita, gogo onez baztertu dira. Argazki kamera ere atera dute gazteenek. Besteak beste, Zumaiaiko itsaslabarren garrantzia goraitatu du Arenillasek, “50 milioi urteko historia jarraian ikus daitekeelako”.*

Elkar ezagutu zutenetik, ia “izatezko bikotea” osatzen dute. Proiektua bien artean mamitu dute, batak besteari bakoitzak

bere esparruan duen jakinduria aitortuz, errespetatuz, baina iritzia emateko beldurrik gabe. Proiektua aurrera ateratzeko “kreditua” lortzea ere bien lana izan da. “Ez nuke esango dirua lortzea zaila izan denik. Prozesu luzea izan da, baina zaila ez. Norengana jo erabakitzeko bildu ginenean, pentsatu genuen Kutzarekin probatzea. Hasieratik oso jarrera ona erakutsi zuten, interes handia, eta hori nahikoa deigarria izan zen niretzat, zinemaren normalean gauzak ez direlako horrela izaten. Gero, lehen bileratik dena lotu dugun arte ia urtebete pasa da, dei asko egin behar izan ditugu, ideiarri forma eman, beste instituzioekin bildu...”. Une batez, dena bertan behera uzteko zorian izan zirela aitortu dute: “Proiektuak oso harrera ona izan du bai Kutzaren aldetik, bai instituzioen aldetik. Baina gauza bat da hori eta bestea baietzko definitiboak jasotzea, eta horretarako ia urtebeteko bidea egin behar izan dugu. Une batez dena uztekoan egon ginen, horrelako proiektu handi batekin aurrera jarraitzeko dena oso garbi ikusi behar duzulako. Une horretan hondoa jo eta goraino igotzeko gauza izan ginen, oso garbi ikusi genuen proiektua gurea zela eta guk nahi genuen bezala burutuko genuela, geuk erabaki



## Dokumentalaren datuak:

Izenburua: **‘Flysch, haitzen hitza’**

Zuzendari-gidoilariak: **Alberto Gorritiberea** eta **Asier Hilario**

Zuzendariaren laguntzailea: **Mikel Mendizabal**

Argazkia: **Javier Agirre**

Musika: **Bingen Mendizabal**

Iraupena: **50 minutu inguru**

Babesleak: **Kutxa, Zumaiaiko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia** eta **Eusko Jaurlaritza**

## Proiektuaren kronologia:

- 2007ko ekaina: nazioarteko kongresua egin zen Zumaian, labarretan zenbait estratotipo izendatzeko. Komunikabideetan izan zuen oihartzunak bultzatu zuen Alberto Gorritiberea Algorri Interpretazio Zentrora, informazio eske. Asier Hilario ezagutu eta dokumentala egiteko ideia sortu zen.
- 2008ko irailaren 28a: proiektua lantzen eta dirua biltzen urtebete egin ondoren, lehen grabaketa eguna, Algorrin. Hurrengo egunetan, Sakonetan eta Itzurunen grabatu dituzte elkarriketak.
- 2008ko urriaren 31: dokumentalaren hiru minutuko trailerra estreinatuko dute Zientziaren Kutxaguneari (Donostia).
- 2009ko martxo-apirila: grabaketaren bigarren parteari ekingo diote. Hamar bat egun Zumaian, falta diren zientzialariak elkarriketatzeko, eta gero beste hiru bat aste bidaiatu eta atzerriko irudiak grabatzeko.
- 2009ko abuztua-iraila: dokumentala amaituta egotea espero dute.



bezala. Hori apustu handia da, baina hala izan ez balitz akaso ez zen egingo”.

*Irailak 30, asteartea. Goizeko zortziak. Furgonetekin Sakoneta baserriraino jaitsi da lantaldea. Gero, material astunena bartu eta 4x4 ibilgailu batekin bidean behera abal izan duteneraino hurbildu dira harraldera lantaldeko kide batzuk. Bitartean, beste batzuk oinarrizko ekipoarekin labarrera igo dira. Adolfo Uriarte ozeanografoa aktore lanetan jarri dute, elkarrizketa egin aurretik. Aztiko ozeanografia saileko eta Donostiako Aquariumeko zuzendaria da. Asierri eta Albertori begiak piztu zaizkie itsas hondoaren kalitate handiko irudiak eskaini dizkienean. Kostaldeen eta itsas hondoaren mapa topografikoak ere ba omen dituzte, hiru dimentsiotan egindakoak. Gero, elkarrizketan: “Itsasoak ez du beti izan gaur egun ezagutzen dugun altuera. Lurraren historian zehar, metro asko egin ditu gora edo behera. Flysch fenomenoa ere aro eta altuera ezberdinetan gertatu da. Gaur egungo marearteko gunek, zenbait puntutan, sei kilometroko luzera du. Horrek esan nahi du kostaldek sei kilometro egin dituela atzera. Baina itsasoan hondorago joanez gero, terraza modukoak ikusten dira. Horiek dira garai bateko marearteko gunek eta itsaslabarrak. Orduan itsasoa gaur baino beberago zegoen. Baina gorago ere egon da. Plentziatik Getxoraino doan kostaldean, labarren gainean lautada zabal bat dago. Hori, bere garaian, marearteko gunea izan zen”.*

“Dokumentalaren egitura zehaztuta dago eta oinarrizko gidoi bat ere eginda dago, baina gidoi irekia izatea nahi dugu, dokumental gehienetan egiten den modura. Kasu honetan,

hogei zientzialariren hitzak jaso behar ditugu, eta haiek esandakoak baldintzatuko du gidoia. Horrek lana zaildu egiten du, baina, aldi berean, aberastu ere bai. Guk ez diegu esango zientzialariei hau esan behar duzue edo hau da zure ahotik entzun nahi duguna. Ate bat zabalik utziko dugu hasierako gidoiari ideiak gehitzeko. Gure asmoa ez da gaur egun munduak izan ditzakeen arazo larrienen gaineko mezu jakin bat zabaltzea, baizik eta hausnarketarako abiapuntu bat eskaintzea. Zientzialariei entzun ondoren, ikusleak erabaki dezala. Gure ideia oso sinplea da: Lurrak milioika urteko historia du eta horren aurrean gizakiak hutsaren hurrengo baina ez gara. Ikusita gaur egun ditugun erronkak, gaiari buruz hitz egin nahi dugu”.

“Hain ederra da paisaia, betekada handi samarra hartzeko arriskua dugu. Estetikoki horri neurria jartzea izan da egin behar izan dugun ariketa nagusia”



Bigarren grabaketa eguna: goizean Adolfo Uriarte elkarrizketatu dute Sakonetan; eguerdian, Xabier Orue Itzurunen eta bazkalondoren Juan Ignacio Bazeta Talaimendin.





*Sakonetan lanak amaituta, ziztu bizian dena jaso, furgonetetan sartu eta Itzurunera. Asier Hilario aurreratu egin da, zain dituelako Xabier Orue eta Juan Ignacio Bazeta, hurrengo elkarrizketatuak. Adolfo Uriarte berekin etorri da. Autoa aparkatu eta ordenagailua atera du Uriartek. Hiru dimentsiotan egindako itsas hondoaren irudiak erakutsi dizkio Asierri. Duela milioika urte Urumeak, Oriak edota Urolak egindako ubideak oso ondo ikusten dira. Gaur egun itsas hondoa dauden arrastoak baino ez dira. Etorri da lantaldea. Dena muntatu eta lebenbailehen hasi dira elkarrizketekin, itsasoa gora dator eta. Santelmopean egin dute lebena. Xabier Oruek azaldu du estratotipoa garai geologiko jakin bat definitzeko aukeratzen den lekua dela, eta ia zumaia aukeratu zela baldintza ezin hobekak eskaintzen dizkiolako ikertzaileari. Elkarrizketa amaituta, presaka bazkaldu dute, lanari lebenbailehen ekiteko. Talaimendiko amildegira ematen dute 'balkoieta' batean jaso dituzte Bazetaren azalpenak. Planoa ederra da: arratsaldeko eguzkiak gorritutako labarrak albo batean, laino zuriek jantzitako zeru urdina bestean.*

“Dokumental honen kasuan, esango nuke daukagun paisaia politogia dela. Hain ederra da dena, betekada handi samarra hartzeko arriskua dugu. Eta estetikoki horri neurria jartzea izan da egin dugun ariketa nagusia. Hain paisaia liluragarriaren aurrean, gure gogoari cutsi egin behar izan diogu, bestela irudiak edukia jateko arriskua zegoelako. Artea, nire ikuspegitik, horixe da gainera, euste ariketa etengabea. Distantzia bat hartu behar izan dugu: paisaia hor dago, bai, baina itsutu gabe”.

*Arratsaldeko zuzpiak. Orue eta Bazeta joan dira, baina eguneko lanak ez dira oraindik amaitu. Algorriko muturrera doaz orain, fikziozko plano batzuk grabatzera. Asier Hilariok egingo ditu aktore lanak. Lainoak datoz mendealdetik. Halako batean, eguzkiak tarte bat aurkitu eta foko zuri bat murratu du ur azalean. Grabatzen hasi dira.*

“Ikusita Asier Hilariok kameran oso ondo ematen duela, erabaki genuen geologo baten pertsonaia sortzea, eta geologo hori izatea munduan zehar bidaiatuko duena leku esanguratsuen bila. Dokumentalean beste elementu bat sartzeko aukera ematen digu, elkarrizketen dinamika noizean behin eteteko, estetika bera aldatzeko. Eta narratzailearen figura sartzeko ere aukera ematen digu. Hasieran pentsatu genuen dokumentala narratzailearik gabe egitea, elkarrizketatik elkarrizketara jauzi egitea. Baina ikusi genuen jendeari zaila egingo zitzaioela edukia ulertzea, hariari jarraitzea. Narratzaile honek aukera ematen digu elkarrizketak lotu eta hari bat sortzeko. Hori soilik ahots batekin egin beharrean, erabaki genuen pertsonaia bat sortzea”.


*Urriak 1, asteazkena. Gaur ez dago elkarrizketarik, baina ez da lanik faltako. Gaur 'buruberoak' erabiliko dituzte irudiak grabatzeko: zortzi eta hamabi metroko garabiak, plano ikusgarriak lortzeko. Algorrin aurrea. Gora eta behera, atzera eta aurrera ibili dute kamera, paisaiaren, labarren eta brankaden bista ezohikoen bila. Gero, lanean jarri dute Aitor Leiza, haitzeko bizidunak ere dokumentalean erakusteko. Handik gertu olagarrotan zebilen batek*

## Puntako hogeitazientzialari

“Zientzialarien artean bi multzo egin ditugu. Batetik, hemen lan egin duten zientzialari garrantzitsuenak, beren ikerketen emaitzen berri eman dezaten. Eta, bestetik, hemen inoiz lan egin gabe, hemendik atera den informazioa interpretatu eta gaur egunera ekartzeko lagunduko digutenak. Hasieratik onenen bila joan gara, eta erantzuna paregabea izan da. Baten erantzuna baino ez zaigu falta eta beste guztiek baiezkoa eman dute. Kosta zati honek pisu handia du ikerketa mailan, eta uste dut proiektua ere oso ondo aurkeztuta zegoela. Hogeitazientzialari? Bai, hala da, baina beti esaten dugu lan honek 50 minutuko dokumentala emango duela, produktu biribil bat, baina elkarrizketetako hogeitazientzialari ordu horiek sekulako altxorra izango dira. Aurrerago ikusiko dugu zertarako erabili”.

### Parte hartuko duten zientzialariak:

Jose Antonio Arz (EH), Ignacio Arenillas (EH), Adolfo Uriarte (EH), Xabier Orue (EH), Juan Ignacio Baceta (EH), Victoriano Pujalte (EH), Estibaliz Apellaniz (EH), Adolfo Eraso (EH), Eustaquio Molina (Esp), Pablo Gumiel (Esp), Juan Carlos Gutierrez (Esp), Jaime Dinares (Ita), Birger Schmitz (Sue), Jan Smit (Ned), Bruce Runnegar (AEB), Francisco Anguita (Esp), Miguel Delibes (Esp), Adolf Seilager (AEB), Peter Ward (AEB), Anil Mar-kandya (Ing).



Jan Smit geologoa, Algorrin.



*Sakonetan grabatzen: Kamera Adolfo Uriarteri begira dago. Labarraren gainean iñurri bat dirudi ozeanografoak.*



## Algorritik mundura

“Lekuak aukeratzeko bi gauza hartu ditugu kontuan: batetik, leku ezagunak izatea, hemengoak haien pare jartzeko (esate baterako, Doverko labarrak, Ingalaterran, mundu guztian ezagunak dira eta hauen oso antzekoak dira); beste irizpidea tematikoa izan da: adibidez, meteoritoaren teoriak hitz egiten bada, logikoena da meteoritoa erori zen lekura joatea, Yucatanera (Mexiko). Lekuak oraindik erabat erabaki gabe daude, baina, hemen gertutik hasita, aurrena Bidartera joko dugu, Lapurdiko kostaldera, beste K/T (Kretazeo/Tertziarioa) muga famatu bat han dagoelako, Europan ezagunenetarikoa. Ordesara ere joango gara, Pirinioetara, garaikideak direlako eta hau guztia Pirinioen sorrerarekin batera altxa zelako itsas hondotik. Ordesak ere balioko digu glaziazioez hitz egiteko, glaziarrek garai batean nolako indarra izan zuten eta gaur egun nola dauden. Doverko labarretara, haiek ere garaikideak direlako. Ondoren, Mexikora, Yucatanera, meteoritoak utzitako kraterrera. Beste bidaia bat Islandiara izan daiteke, hau dena esplikatzeko plaka tektonikoen mugimenduak azaldu behar direlako, eta horretarako ez dago Islandia baino leku egokiagorik; horrez gain, glaziarren inguruan ere hitz egiteko aukera ematen digu. Eta baliteke Tunisiara ere joatea, K/T mugaren estratotipoa han dagoelako”.



Goiko argazkian, zuzendaria irudiak pantaila batean ikusten. Behekoan, hamabi metroko garabiarekin irudiak grabatzen, olatu artean.



Bideo erreportajeak  
[www.baleike.com-en](http://www.baleike.com-en)



Duela hilabete batzuk Baleikek proiektuaren berri izan zuenean, *making-off* moduko bat egiteko aukera proposatu zien dokumentalaren zuzendariari; hau da, dokumentala nola egiten duten erakusteko bideo erreportajeak egitea. Ideia ondo iruditu eta lehen grabaketa egunak bertatik bertara jarraitzeko aukera izan du Baleikek. Lehen asteak eman duenaren emaitza [www.baleike.com-en](http://www.baleike.com-en) ikus dezakezue.

*utzitako olagarroa, artean bizirik, putzu batean jarri eta ari so gelditu da kameraren begia.*

*Kazetariak hitzordua eskatu die, proiektuaz lasaiago hitz egiteko. "Bazkalondoren, Itzurumen garabia muntatu bitartean". Alberto eta Asier, biak jarri dira kazetariaren kameraren aurrean.*

**Lehen grabazio egunak pasa dira, bost elkarrizketa egin dituzue eta beste hainbat irudi jaso ere bai. Oraingoz badirudi dena oso ondo doala. Lehen grabaketa lan hauek amaitutakoan, zer plan dituzue?**

Orain, lehenengo gauza, aste hau bukatu ondoren, bizpahiru eguneko atsedena behar dugu, lana oso intentsoa izan delako. Gero, trailerra muntatu behar dugu, urriaren 31n Zientziaren Kutxagunea estreinatu ahal izateko. Ondoren, daukagun materiala ondo aztertu eta falta diren zientzialarien galderak prestatu eta bidali. Erantzunak lehenbailehen behar ditugu gidoi definitiboak egin uzteko. Bidaiak prestatzen hasi beharko dugu, martxorako dena prest egon dadin, azken grabaketekin hasi ahal izateko. Hilabete emango dugu, gutxi gorabehera, grabatzen, eta espero dugu uda amaierarako dokumentala muntatuta egongo dela.

**Dokumentala non ikusi ahal izango da?**

Hori oraindik erabat erabaki gabe dago, baina dokumental hau, printzipioz, telebista katei salduko zaie, batez ere, bai hemen, bai atzerrian. Dokumentalen jaialdietara aurkezteko asmoa daukagu, eta herriz herriko emanaldiak ere antola dai-

tezke, mahainguru batekin osatuta.

**Hizkuntzari nolako tratamendua emango diozue?**

Jatorrizko bertsoa euskaraz izango da, baina elkarrizketatuen kasuan iruditzen zaigu merezi duela jatorrizko hizkuntza mantentzea eta azpituak erabiltzea. Nazioarte mailako dokumentala egin nahi dugunez, uste dugu jatorrizko hizkuntzak mantendu behar direla. Beraz, narratzaileak euskaraz egingo du, eta zientzialariek beren hizkuntza: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez... Euskarazko bertsoaz gain, gaztelaniazkoa eta ingelesezkoa egingo dira.

**Musikarik izango al du dokumentalak?**

Musika Bingen Mendizabalek egingo du. Dagoeneko zerbait egin du eta bete-betean asmatu duela iruditzen zaigu. Behin etorri da Zumaiara hau guztia ikustera, eta trailerrarako bidali digun materiala asko gustatu zaigu. Musikak garrantzi handia izango du dokumentalean.

*Itsasoa indar handiz dator hondartzan gora, eta garabia muntatzeko leku seguruenaren bila aritu dira. Itzuruntziki aldera jaisteko aldaparen amaieran, baina petretetik gora jarri dute azkenean. Bete-betean asmatu dute. Grabatzen hasi direnako itsasoa goraino iristen da olatu bortitzenekin. Korrika saioaren bat ere egin behar izan dute aldapan gora. Baina emaitza ikusgarria izan da. Hamabi metroko buruberoari lotuta, kamerari esker labarrean gora egingo dugu irudiak ikustean, eta Itzuruntziki olatuek nola jotzen duten airtetik zintzilikatuta ikusteko ankeria izango dugu. ■*



**Arrain eta mariskoak**

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



**Emilio Perez**  
Elektrogailu, telebista eta instalazio elektrikoan salmenta eta konponketa

**ADI**

BASADI 2 B  
20750 ZUMAIA  
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157  
E-maila: adiele@euskalnet.net



**L  
I  
B  
R  
U  
D  
E  
N  
D  
A**

**AIZPURUA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261



**ALBERDI**

Erribera kalea, 6 Tel. 943 861 155



**ALGORRI** TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



**ANA**  
STUDIO DANTZAR

Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157 ana@euskalnet.net



ILEAPAINDEGIA

**D'Ana**

Kartaun plaza, 6. behea tel. 943 117 400



**OGILDEB**



**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



**Bakur**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25  
20740 Aezkoa tel. fax. 943 148 300  
bakur@euskalnet.net



**Basodi**  
albaitaritza

Albaitaria Itxiki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310  
www.basodi.com

**Orduak: 15-19 / Arratsaldeak: 16-19:30 / Astelehen gutxi eta laruntzaren artean.**

Lantokiarenak: 405 728 767 Estatuarenak: 405 728 767

**BASUSTA**  
ERRETEGIA



Petala Etazarenha, 23 tel. 943 862 073

**BEDUA**  
**ITURGINTZA S.L**  
ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

## 18. ibilbidea

# Arteagatik Artadira

Zumaia inguruan ibilbide politak egin daitezke, eta horietako asko Artadi inguruan. Izenak garbi adierazten du arte zuhaitza dela hemen nagusi, garai batean gure herriko beste hainbat lekutan bezala (adibidez, San Telmon, Ardantzan, Pikoten...), baina hemen bere horretan jarraitu du basoak, eta gaur egun artadiez gozatzeko aukera daukagu.

Bada ibilbide polit bat, den-dena errepidetik eta zapatak lokazteko beldurrik gabe egitekoa, Arteaga baserritik Gorostiagabeko baserrietara eramango gaituena. Bidean bada zer kontaturik eta bi zatitan egingo dugu: gaurkoan, Arteagatik Artadira joango gara (artetik artera!); hurrengoan, berriz, Artaditik Gorostiagabekora.

XABIER eta IMANOL AZKUE

**Arteaga** baserrian bide asko elkartzen dira: Tiloaldeko zulotik (Basakartetik) datorrena, Garateko gainera doana, Eguzkitza baserria doana (antenen ondotik), Mantzisdorko zubira jaisuten dena..., baina baserri honetan bada beste gauza bat, oso deigarria: ba al da Zumaian beste etxe edo baserririk hainbeste txakur dituenik?

Arteaga baserritik **Artadiko erreidea** hartuko dugu, aldapatxoan gora, eta irten orduko, bide ondoan (ezkerraldean) eraikin berri batzuk ikusiko ditugu: Nuarbeko urtegitik datorren ura mugiarazten duten ur ponpak daude barruan.

Aurrera eginda, errepedearen ezkerraldean **Oikia** ageriko zaigu ia bere osotasunean, eta bide guztian lagunduko digun autopistaren zarata hasiko gara entzuten. Hauxe zioen Ignazio Belaustegik 1900ean, Oikiari buruz: “Oikinako bazterra aiñ da miragarriya ze, esan lezake Jaungoikoak iñon baño geiago bere eskubak zabaldu dituala leku onetako sortitza [natura] apaindu eta jazteko”. Gaur egun ere berdina esango ote zuen?



*1. Arteaga ondoan, ur ponpak. Gaur egun, ura Zumaia Nuarbetik datorkigu, eta etxetxo hauetan dauden ponpek mugiarazten dute.*

Errepidetik Oikia aldera, maldan behera, baso bat dago, **Sanbartolomebasoa**, eta izenean garbi adierazten da lurren jabetza, Oikiako elizarenak dira eta. Errepedearen eskuinaldean, berriz, **Kanposantugain** (129 m) mendixka dago, eta alboan, ezkutatuta, **kanposantua**.

Errepidetik aurrera jarraituta eta Artadiko auzunea agerian, eraikuntza enpresen krisialdi latzari egindako porlanezko monumentua ikusiko dugu, dirudunentzako etxe familiabakar izan behar zutenak asmo huts geratuta. Artadiko errepedera iristen ari garela, San Migeletan zezen txikiak izan ohi diren horretan, bi etxe daude eskuinaldean, **Potzuzabal** izeneko parajea. Dirudienez, zelai honetan ura pilatzen zen, eta hortik datorkio izena. Etxe batek **Potzutxiki** izena du, eta bestea eraiki berria da.

Bidegurutzean gora hartuko dugu, eta ezkerraldean **Etxeberri** geratzen zaigu; izenean argi adierazten da inguruan beste baserri bat zuela: **Etxeberri** baserria, “deseraikuntza” lanek bota zutena. Gorago, **Artadiko eskola** izandakoa, egoera tamalgarrian, erortzeko zorian. Udaleko paperetan behin bai-



2




3



4



5



6



7



8



9



10



11

**2. Oikia.** Artaditik Oikia alderako ikuspegia bikaina da, eta ia oso-osorik ikusten da, alderik alde.

**3. Inmobiliarien krisia.** Familiabakarreko etxeak egin behar eta mugitu zituzten lurrak, hormigoia bota... Eta orain? Landaretzak estaliko ahal du guztia...

**4. Potzuzabal.** Inguru honetan izaten dira zezen txikiak San Migeletan. Dirudienez, ur putzua sortzen zen euria egiten zuenean eta hortik datorkio izena parajeari.

**5. Etxeberri.** Gaur egun ezinezkoa da argazki hau ateratzea: Etxeberriberri (txalet itxurako etxe zuria) besterik ez dago. Ezkerraldeko Etxeberri baserria bota egin zuten, bidea egiteko.

**6. Artadiko eskola.** Eraikin hau ere egoera tamalgarran dago gaur egun, erortzeko zorian. Azken urteetan lantoki izan zuten Txiki Keixeta eta Ander Hormazuri artistek.

**7. Sanmigelzar eta Elizalde.** Etxabe dinastia, pilotariena, hemen sortu zen, hona ezkondu baitziren gurasoak 1872an. Sute batek erre zituen bi baserriak, eta duela gutxi kendu dituzte hondarrak.

**8. Tokialai.** Sotero Gorritik eraikiarazi zuen, 1942an.

**9. San Migel.** Lehen hormak hiraulikarekin estalita zeuzkan eta azken berrikuntzan bistan utzi zuten Floresko harri gorri ederra.

**10. Pontarria.** Ezer gutxi dakigu Pontarriari buruz, eta norbaitek zerbaite jakinez gero, eskertuko genuke argibidea (izenaren jatorria, noiz ezarri zen...).

**11. Zumaia Artaditik.** Elizaren ondotik, toki aproposa aurkituz gero, Zumaia alderako ikuspegia zoragarria da, are gehiago arratsalde gozo eguzkitsuetan.



no gehiagotan ageri da, batez ere han egin beharreko lanak direla eta: “presupuestos aproximados para la conducción de agua al Barrio y Escuela de San Miguel de Artadi y barriada de Gorostiaga” (1933), “Factura de Romualdo Echave (...) por limpieza de la escuela rural de Artadi” (1935), “Una factura de Jeronimo Azcue de esta, por materiales y mano de obra en el blanqueo de las Escuelas de San Miguel de Artadi” (1944)... Lehen zita ura eramateari buruzkoa da, eta garai batean, teknologia hain aurreratua ez zegoenean, horixe zen Artadiren arazoetako bat: ura han goraino, kaskoraino, eramatea.

Eskolaren ondoan beste bi baserri egon ziren: **Sanmiguelzar** (taberna txiki bat ere izan zuena) eta **Elizalde**. Biak ere sute batek suntsitu zituen eta urte askotan hondakinak besterik ez dira egon han. Gaur egun hormarik ere ez da geratzen, baina Sanmiguelzarren sortuak ziren Etxabe dinastiako lehen pilotariak, Euskal Herrian hain ospetsu izan zirenak.

Ondean, harrizko etxe ederra, batez ere Floresko (“proesko”) harri gorriarekin eginda dagoelako; fatxadan begiratuta, izena eta urtea aurkituko ditugu: **Tokialai**, 1942. Sotero Gorritik eraikiarazi zuen.

Baina Artadiko eraikin nagusia, dudarik gabe, **San Migel** eliza da, auzoari askotan izena ere ematen diona. 1739an bihurtu zen eliza, honelaxe jartzen du-eta marmolezko plaka batean: “El señor D. Juan Bautista de Cincunegui y Gorostiaga, Regidor y Alcalde de Zumaia, del Mayorazgo de Gorostiaga, fundo como patrono esta Iglesia en 1739”. 1912an

#### Galdera:

**Artadiko kanposantua muino baten gainean dago. Nola izena du mendixka horrek?**

Txapartegik emandako **tarta eder bat** zozketatuko dugu. Erantzunak [elkarte@baleike.com](mailto:elkarte@baleike.com) helbidera bidali. Erantzunekin batera, izen abizenak eta telefono zenbakia adierazi.

**Aurreko zenbakiko erantzuna: Santiagoerreka**

**Irabazlea: Idoia Zearreta Zorionak!**

berritu egin zuten, Beduako hiraulika erabilia, eta 1985-1989 artean eman zioten gaur egun daukan itxura, hormetako harria bistan.

Elizaren ondoan, eta **frontoia** tartean dela, **Apaietzexa** dago, gaur egun elkarte bihurtua.

Azkenik, elizaren aurrealdean plaza zabala eta laua dago, jolaserako ideala, eta hortxe dago harrizko mahai polit bat, **Pontarrria** izenekoa, makina bat zumaiarren egonaldia gozatu eta lagundu duena.


Elizaren ondotik, txoko egokia aurkituz gero, Zumaia alde-rako ikuspegia zoragarria da, batez ere arratsaldeetan.

**EGOKI**  

**Erloju eta bitxi denda**  
 E. Gurrutxaga plaza, 6  
 tel. 943 861 787

  
 Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943 143 097  
 ekmsi@ekmsi.com www.ekmsi.com  
**Instalazio elektrikoak**  
**Telekomunikazioak**  
**Informatika**  
**Internet**  
 **DIGITAL+**


  
 Erribera, 8 **tel. 943 861 694**

**ERROTA**  
  
**ERROTA**  
**OPIL-OKENDEGUA**  
**SUVIZO AUZOA, 32**  
**20750 ZUMAIÁ**  
**T.F: 943860000**  
**943860612**  
**FAX: 943860977**  
**emta@errotas-ekjologia.com**

  
**Hofmann**  
[www.hofmann.es](http://www.hofmann.es) helbidean sartu  
 eta eman gure kodigo zenbakia:  
**340658**  
  
 Eusebio Gurrutxaga, 6 tel./fax: 943 143 205

**FARMA ZUMAIÁ**  
**PARAFARMASIA**  
 Egoitza: Zumaiá, 8  
 943 861 694  
**PRODUKTUAK**  
 • Urte eta haurrentzat, dietetikoki, kosmetikoki,  
 farmakoa eta osagaiak zehaztzeko...  
**ZERBITZU BEREZIAK**  
 • Dabiz, Inbuz, gaitza, itxokoa, Flaxo de Sach,  
 Moxipax (Terapiak), Kintozinax,  
 Lunaxakak Estomako Arretak, Bunko  
 miren, Zikulojo arazoak...  
 Argumendu, horietatik eta horietatik gero...  
 BARRIOKALEA, 3. BARRIO - ZUMAIÁ

**Galdona**  
  
**burdindegia**  
 Mendakorren kalea, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 340  
 Juan Belmonte, 15 fax: 943 861 330

**GANBARA**  
  
 Taberna  
 Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

**GOFI**  
**Gazte Surf**  
 Baltasar Etxabe, z.g. **tel. 943 860 959**

 **GAZTE, S.L.**  
**ELEKTRIZITATEA**  
*Era guztiarako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan*  
 Trenbide pasealekua, 5. pabilioa tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617

**Gure Txokoa**  
 aberna  
  
 Upela plaza, 4  
 20750 Zumaiá  
 Tel.: 943 86 09 70

**Harvest**  
 English School  
 ...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera  
 San Jose, 11 bis. tel. 943 143 334

 **IBAIT GAIN**  
 Ricardo Azkue  
 API 300  
 inmobiliaria  
 Teatin Aguirre 4. beheko  
 tel. 943 862 651  
 faxa 943862746  
 riazkue@euskalnet.net

  
**Zintza Zumaiá**



# LANBRO ARTETIK URREA

Batek baino gehiagok esan zion estropada amaitu ondoren, benetan merezitako urrea zuela. Urteak baitaramatza Xabier Osak goi mailan lehiatzeko gogor entrenatzen. Aurten Txekiar Errepublikan izan da Munduko Txapelketa. Bakarkako proban, bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuen, aurkarien maila handiaz ohartuta. Bikoan berriz, Ramon Cerra asturiarra piraguakide, aise lortu zuen urrea. Baleike bertan izan zen –web gunean duzue hogeitatu minutuko bideoerreportajea–.

ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA





**Kieko proba.** Dominen lehian izateko gogor entrenatu du Xabier Osak, baina, berak dioen bezala, dominak ezin dira lehiatu baino lehen banatu. Probaren erdialdera, gerriko eta eskumuturreko mina jarri zitzaion, piraguan ez zen eroso joan, eta azkenean bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Hala ere, lasai zegoen, egun hartan eman zezakeen guztia eman zuelako.





**K2koan, txapeldun.** Hurrengo egunean kezka nabari zitzaien aurpegian. Eskumuturrean min handia zuen eta ez zion Ramon Cerra piraguakideari huts egin nahi. Hortzak estutu eta dena eman zuen uretan. Zorionez, amaiera arte eutsi zion. Podiumera igo eta irrifarre egiteko aukera izan du, azkenean. Emaztea, alaba, senideak, lagunak, Oier Aizpurua... Denak gogoan.



# PUBLIZITATEA



**ilarzi**  
Alai auzategia, 2  
Tel. 943 24 50 20



**IRUITZ**  
Ileapaindegi Mistoa  
San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 860 760


**ITSASKI**  
SUPERMERKATUA  
Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058



**Itzurun, S.L.**  
Aroztegia  
Atak, ehokak, tartak, amaru enpatzak...  
Itzurun Zuhaitzidea, 2 behea  
Tel. / Fax: 943 86 15 65




**ORRAZTEGI ZUMAI**  
943 862 083



**KABI**  
Patata Etxezarreta, 18  
943 117 427  
Upelua plaza, 8  
tel. 943 862 517

**JUARISTI**  
jatetxea  
Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua  
Basko auzategia, 10 tel. 943 861 863



**kalar1**  
Upelua plaza, 8  
tel. 943 862 517



**Kresala**  
Taberna  
Julio beobide 3, tel. 943 019 569



**malaur**

**MAITE**  
ILEAPAINDEGIA  
Amasiko plaza, 2 tel. 943 143 278

CROISSANTERIA  
pizak  
hanburesak  
bokatak...  
**Marina**  
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



**Maxi**  
ileapaindegia  
solarium  
etxazarreta, 9 tel. 943 861 021 [lasonet.com/maxi](http://lasonet.com/maxi)



**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea  
Urota plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569

Migel Mari Larburu


Aita zuria

# ARGI BAT NAHAS- MENAREN ERDIAN

40 urte daramatza Migel Mari Larburuk Aljerian. Azken urte eta erdia desertuan, Ouargla hirian, igaro ditu hizkuntz eskola abian jarri eta bertako liburutegia hornitu nahian. Bi urtean behin Zumaiara etortzen da oporretan. Egonaldi hau aprobetxatu dugu Afrikako herrialde horretaz eta bere proiektuez hitz egiteko.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

ARGAZKIAK: JUAN LUIS ROMATET eta MIGEL MARI LARBURU





*Ouarglan hezkuntza-rekin lotutako zenbait proiektu bultzatzen ditu Aita zurien kongregazioak. Horien artean, liburutegia, ordenagailu gela...*



Lauzpabost galdera egiteko asmotan joan nintzen Migel Mariaren etxera eta azkenean ordu eta erdi luzatu zen hizketaldia. Argazkiak ateratzeko, berriz, zer hobeto Ubillosko jauregia baino: “Hemen egin nituen ikasketak eta meza-mutil ere izan nintzen hemen.”

**Dagoeneko lau hamarkada daramatzazu Aljerian eta pentsatzen dut ondo ezagutuko duzula bertako gizartea. Nola dago herrialde hau gaur egun?**

Aljeriak egoera nahiko nahasia bizi du gaur egun eta aitortzen dut ez diodala irtenbide garbirik ikusten. Inoiz baino aberastasun handiagoa dago Aljerian petrolio eta gas naturalari esker, baina pobrezia ere inoiz baino handiagoa da. Langabezia ere kontrolrik gabe igo da azken urteetan herrialde osoan eta bereziki guk lan egiten dugun eremuan, basamortuan. Berezia da benetan, lan asko baitago han petrolioaren industrian, baina bertako bizilagunek ez dituzte lanpostu hauek eskuratzen, ezta txikienak ere. Aljeriako armadak kontrolatzen ditu lanpostu horiek mafia bat balitz bezala eta agintarien


familiakoek edota ingurukoek eskuratzen dituzte sortzen diren lanpostu horiek. Horrek sutan jarri ditu bertako bizilagunak eta inoiz ez bezala biolentzia ekintzak bizi izan dira herrialde osoan. Hemen hain ohikoak ez diren manifestazioak ere antolatu dira desertuko hirietan. Gobernuaren erantzuna indarra erabiltzea izan da: liskarrak izan dira, baita hildakoak ere. Egoera hori salatzeo esan liteke altxamendu bat egon dela, baina zaila du aurrera egitea, hori gidatuko duen liderrik ez dagoelako. Lidergo horren falta nabari da Aljeria osoan, ez desertuan bakarrik. Onartu beharra dago: politiko eskasak ditugu Aljerian. Langabeziaren arazoari etxebizitzena ere gehitu behar zaio. Bikote gazte pila bat dago ezkondu ezinik etxebizitzarik eta lanposturik ez dutelako. Egoera beltz honetan albiste on bakarra dago: jaiotze tasa jaitsi egin dela. Uste baino lehenago eta nahiko kopuru handian, gainera. Zer ikusi handia du horretan emakumeek azken urteetan eman duten aurrerapausoa. Gero eta garrantzi handiagoa ematen diete ikasketei eta lanari, eta antisorgailuak ere lehen baino errazago aurki daitezke botiketean.

**Zergatik uste duzu jaitsi dela jaiotze tasak?**

Herri bat analfabetismotik ateratzen denean, alfabetatuen kopurua % 50 baino handiagoa denean, jaiotze tasak automatikoki behera egiten du. Aljerian hori gertatu da neurri handi batean. Ideologiek edota sinismenek ez dute horretan zerikusirik.

**Nahasmena suma daiteke gizar-tean. Arazo horri biolentziarena ere gehitzen zaio, abuztuan erdi alde-ra bi atentatu handi izan ziren eta. Independentzia garaiko borroka, 1990eko hamarkadako hilketak, Orain Al Qaeda-ren atentatuak. Badirudi gertaera hauengatik bakarrik dela hizpide Aljeria.**

Aljeriako gatazka une jakin batzuetan bakarrik izan da egunkariaren azaletan, baina esango nuke guk terrorismo larbatua bezala izendatzen duguna ez dela inoiz galdu eta hor izan dela beti. Agian maila baxuagoan, baina hor dirau, taldeek azpiegitura guztia mantentzen dute eta. Aljeriaren historian, independentziaren garaitik gaur arte, guda eta borroka oso



## Gobernuz Kanpoko Erakundeak direla eta

**Beste elkarte batzuk bezala, herritarrekin ari zara lanean. Paul Theroux idazle estatubatuarra Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GKE) kexu zen bere liburu batean. Laguntza hauek jasotzen dituzten herrialdeak gaizki ohitu direla zioen; janaria eman beharren janaria ekoizteko medioak eman behar omen zitzaizkien.**

Teoria hori Mao Tse-Tungek atera zuen bere garaian. “Ez eman arrain bat,” zioen, “emaiozu kanabera bat.” Eta agian testuinguru batean bazuen arrazoia, herrialdeek independentzia lortu zuten garaian, hain zuzen ere. Afrikak bere kabuz aurrera egingo zuela zioten. Baina ordutik makina bat pandemia ikusiak gara: HIESaren epidemia, goseteak, lurrikarak... Langabeziaren arazoa ere benetan larria da. Horren guztiaren aurrean oso pesimistak bihurtu gara. GKE hauen kasuan, badira batzuk sekulako lana egiten dutenak, baina baita zalantza ugari pizten dituzten beste batzuk ere. Une honetan, mundua nola dagoen ikusita, beharrezkoak dira erakunde hauek, nahiz eta kontrol bat ere mantendu behar den. Gu suhiltzaileak bezalakoak gara: sua dagoen lekura joaten gara hura itzaltzera. Suhiltzailerik ez balego, denak su hartuko luke. Afrika nora doan ikusita, laguntza gutzia da beharrezkoa.



gogor eta krudelak bizi izan dira eta behin baino gehiagotan, guda zibilaren antza izan dute.

**Atentatuak Al Qaeda bere gain hartu zituen. Zer nolako harrera du erakunde horrek Aljerian?**

Al Qaeda Aljerian duen basea Cabilian dago, ekialdean, Tunisiaren mugan. Orain dela pare bat urtetik hona, talde islamistak edota integristak elkartu eta Al Qaeda Magreb izena hartu zuten. Hemen ere Irak, Pakistan eta beste zenbait herrialdetan erabilitako taktikak hartu dituzte: auto bonbak, bereizi gabeko hilketak eta abar. Aurreko hamarkadetako taldeekin konparatuta, badute beste desberdintasun bat: 1990eko hamarkadako urte haietan aritu ziren talde islamistetako kide guztiak aljeriarrak ziren; orain, inguruko herrialdeetako jendea erreklutatzen dute. Marokokoak, adibidez. Magrebeko taldearen helburua beste herrialdeetako taldeen berbera da: gatazka herrialde musulman guztietara zabaltzea. Baina orain 15 urte ez bezala, gaur egun ez dut uste iraultza izateko baldintzak betetzen direnik. Beldurra eta terroreaz aparte, ez

dut proiektu politikorik aurkitzen mugimendu hauetan. Eta metodo horiek oso zaila da jendea elkartzea.

**Integristak hauteskunde batzuk irabazteko zorian izan ziren bere garaian. Ez al duzu posible ikusten egunen batean boterera iristea?**

Egia da 1991. urteko hauteskundeak irabaztekoan izan zela FIS (Salbaziorako Fronte Islamdarra) alderdia. Lehen itzulia ere irabazi zuen eta gehiengo absolutua lortzetik oso hurbil izan zen, baina demokraziaren amaiera ekarriko zuen beldur, une hartako gobernuak hauteskundeak bigarren itzulia anulatatu eta alderdia legez kanpo utzi zuen. Ondoren, hamar urte gogor haiek bizi izan genituen –200.000 hildako inguru izan zen hamarkada horretan—. Onartu behar

dut guk ez genuela gaizki ikusten gizar-tean aldaketa batzuk izatea. Desertuan geundenon ustetan, aukera batzuk eman behar zitzaizkien. Baina iparraldean bizi zirenak, elizakoak barne, beldur ziren. Hiltzeko asmoa zuten jendearen zere-ntza luzeak zituztela zioten. Guk de-



**“Aljeriak egoera nahasia bizi du gaur egun eta aitortzen dut ez diodala irtenbide garbirik ikusten”**

mokrazia azken muturreraino eraman behar zela aipatzen genienean, haiek argumentu alu bat botatzen ziguten: Hitlerrek zer egin zuen? Demokratikoki igo zen boterera eta gero sekulakoak egin zituen. Eta ezin ezetz esan, historiak hala dio eta. Baina gerta al liteke hori berriro? Beti geratuko da duda zer gerta zitekeen. Orain integristak berriro indartsu dabil-tza, baina uste dut beraiek ere badakitela boterea urrun dutela. Hori bai, azpijan handia egiten ari dira salafistak aljeriar gizartean eta atzerritarrenganako mesfidantza gero eta handiagoa da. Hori guk ere nabari dugu. Desertuan lehen edozein etxetan ongietorriak ginen. Orain, berriz, familia batek atzerritarrak bere etxean sartzen baditu, gaizki ikusia izaten da. Horrek min egiten du.

**Garai hartan talde integristen miran izan zineten. Garai gogorra izango zen zuentzat.**

Pentsa ezazu: 19 moja eta apaiz hil zitu-tzen hamar urte haietan, eta horietatik lau Apaiz zuriak ziren. Ez hori bakarrik. Lau anaia hil eta zortzi egunera Ghar-daian genuen etxean sartu ziren. Esker-rak ez zuten etxea ezagutzen, okerreko atea bota zuten eta. Zarata entzunda, anaiek ihes egitea lortu zuten. Hura izan zen guretzat garai gogorrena, ikusten genuelako gure bila zetozela. Egoera hartan, nahi zuenak etxera itzultzeko aukera zeukan, baina kongregazio bezala ezin genuen Aljeria utzi. Beste kongregazio guztiak guri begira zeuden, guk zer erabakiko zain. Esperientzia genuen Alje-rian, bertan bizi ginen eta han zegoen gure bokazioa. Guk alde egingo bagenu, beraiek ere erabaki berdina hartuko zu-ten, ziur aski. Baina han geratuko gine-la ikustean, haiek ere berdin egin zuten. Egoera gogor hartan une ederrak ere izan ziren: gu han geunden bitartean, itxaropena mantentzen zutela zioten he-

rritarrek. Anarkiaren garai hartan, gu argi bat ginen beraientzat.


**Gaur egun egoera desberdina dela diozu. Zer nolako harremana duzue Aljeriako gobernuarekin?**

Harremanak gaiztotu egin dira azken urte hauetan. Islamistak ahotsa altxa dute, ez dituztela guztiak berdin trata-tzen: esaten dute aljeriar Gobernu-a be-raiekin sartzan dela eta gu bakean uzten gaituela. Hori nahikoa ez eta azkenaldian protestanteak, ebanjelistak eta kristau sektak agertu dira Cabilia inguruan. Guk ez bezala, beraien erlijioa herritarrengan zabaldu nahi dute. Horren guztiaren au-rrean, lege berriak sortu ditu Gobernuak talde horien lana eragozteko. Hasieran zioten neurri horiek ez zutela gudan era-ginik izango, baina azkenean kristau eta atzerritar guztiak poltsa berean sartu di-tuzte. Apaiz eta sendagile batzuk dagoe-neko atxilotuak eta epaituak izan dira.

## 40 urteko egonaldi luzea

**64 urtetatik 40 igaro ditu Migel Mari Larburuk Aljerian, ia denak desertuan. Hainbat urtetan Ghardaian egon ondoren, azken urte eta erdia 230.000 bizilagun dituen Ouargla hirian igaro ditu. “Une honetan lau lagun gaude Ouarglan eta uda-zkenean meza eman berria den gazte bat etorriko da. Mojak eta apaizak batuta, 60 bat lagun gaude basamortuan eta Aljeria osoan 250 inguru. 1990eko hamarkadako urte gogor haietan ez genuen apaiz gazte bat bera ere ekarri, oso arriskutsua zelako. Orain nabari-tzen dugu eten hori. Pentsa, 64 urterekin ni naiz hango gazteena!”**

Migel Marik behin eta berriz azpimarratzen du beraien hel-burua bertako herritarrak laguntzea dela: “Norbaitek pentsa-tuko du kristau fedea zabaltzeko etorri garela hona, baina ez da horrela: gu laguntzera etorri gara. Kristauak zenbat izango dira Ouargla inguruan... lau, gehiago ez. Meza igande eta jaiegunetan ematen dugu, baina esan liteke guk geuk behar dugulako ematen dela. Astean behin Hassi Messaoudera joa-ten gara meza ematera, hango petrolio putzuetan lan egiten





## Etorkizunari begira ezkor ikusten zaitut.

Ez diot eta irtenbiderik ikusten egoerari. Ez dut uste inor gai denik herria aurrera eramateko. Afrikako beste herrialde batzuetan (Hego Afrikan, adibidez) prozesu luzeak gauzatu dira etorkizunera begira. Eta emaitza perfektua izan ez bada ere, bere maila eman du. Baina han jende ona zuten: Nelson Mandela, Desmond Tutu... Aljerian ez dago horrelakorik. Bere momentuan probetxua atera zuen jendea besterik ez dago. Horrela zaila da etorkizunera begira itxaropentsu egotea. ■



## Mugimenduak Elizaren baitan

“Bokazioaren aldetik, Elizak pairatzen duen krisia argia da. Horrek aldaketa handiak eskatzen ditu Elizaren barruan, baina hemendik ez da mugimendurik ikusten. Alderantziz. Agian begiak ixten ari gara. Bokazioa izan badago, baina eskuin muturreko mugimenduetan. Eliza horra mugituko balitz guztiz kaltegarria izango litzateke denontzat. Krisi horri aurre egiteko, Elizak berriro hasi beharko luke, beste ministerio batzuekin eta emakumeei aukera gehiago emanaz. Gaur egun emakumeak dira elizatan gehien aritzen direnak, baina beti maila apalean, eta uste dut emakumeei ate guztiak ireki beharko litzaizkiekeela.

Apaiz ezkonduen gaia ere hor dago. Ekonomikoki arazo larria izango litzateke Elizarentzat apaiz ezkonduak onartzea. Begira. Gu oso merkeak gara Elizarentzat. Ez dugu emazterik, ezta haurrik ere. Soldatak ere nola halakoak dira. Emaztea eta haurrak izango bagenitu, horrek gastu handia lekarke Elizarentzat. Baina aurrera egin nahi badu, uste dut horretara ere helduko garela.”

duen atzerritar ugari daudelako. Eta nahiz eta oso jende gutxi inguratzen den, garrantzitsua da ohitura horiek gordetzea. Gainera, atzerritarrekin hitz egin eta ikasle izandakoekin elkartzeko aukera izaten dugu.”

Lau hamarkada hauetan hezkuntza mundua landu du bereziki. “Bere momentuan eskolak eta ospitaleak genituen Aljerian. Eraikinak gureak ziren eta Gobernuarekin genuen konbenio bati esker, beraiek ordaintzen zituzten soldatak. Desertuko oasi bakoitzean altxa genuen eskola bat. Gure helburua basamortuan bizi ziren gazteak formatzea zen, beldur ginelako petrolio putzuetan iparraldeko jendea hartuko zutela horiek edukazio hobea zutelako. Eskola hauek ondo antolatuta zeuden eta jende oso ona formatu genuen. Baina, onartu behar dut, Aljeriak izan zuen garapenerako jende gutxi atera genuen. Baina 1976. urtean eskolak nazionalizatu zituen Gobernuak. Handik urte batzuetara jaiotze tasa ikaragarri igo zen Aljerian eta eskoletara hurreratzen zen ikasle kopuru handiari ezin izan zitzaion erantzun. Ondorioz, hezkuntzaren maila izugarri jaitsi zen”. Nahiz eta ofizialki ezin zuten irakaskuntzan lanik egin, sistema ofizialaren ondoan, sistema paralelo bat eratzea erabaki zuten. “Ingelesa eta frantsesa erakusten genien gazteei eta batxilergoa ateratzeko laguntza ere eskaintzen genuen. Horretaz gain, liburutegiak osatu genituen Aljeriako zenbait herritan. Ghardaian, adibidez, 13.000 liburu biltzera heldu ginen. Ouarglan ere bada unibertsitatea, baina gabeziak beste

hiritakoen parekoak dira. Hori dela eta, eskola eta liburutegia ere sortu ditugu hemen.”

Eratu duten sistema honek etorkizun beltza izan dezake, ordea. “Azkenaldian Aljerian pairatzen den arazo batean burubelarra sartu gara: abandonatutako haurrak. Gero eta gehiago dira abandonatuta uzten diren umeak. Ghardaian eta Ouarglan ‘bekatuaren umeak’ bezala ezagutzen dituzte eta ospitaleetako geletan edota beste leku batzuetan uzten dituzte, zikinkearia artean. Arazo horren aurrean esku hartzea erabaki genuen eta badirudi Ouarglako gobernadoreari ez zitzaiola hori gustatu. Horregatik, eskola ematea debekatu eta liburutegia ixteko agindu zuen. Une honetan (irailaren hasieran) hizkuntz eskola itxita dugu, baina liburutegia zabalik dago oraindik. Pentsatzen dut udazkenean berriro zabalduko dugula eskola, baimenarekin edo baimenik gabe.” Proiektu hauek gauzatzeko kanpotik datorren diru laguntza ezinbestekoa dute. “Une honetan ez dugu Aljeriako gobernua laguntzarik, eta lan egiteko beharrezkoa dugu kanpoko elkarte eta erakundeen bultzada. Zumaiaiko Udalarena, adibidez.”

65 urteak laster beteko ditu, erretirorako garaia, baina Larbururen buruan ez da sartzan lanak alde batera uztea: “Zumaian oporretan egon naizen denboran inoiz baino jende gehiagok esan dit agian badela itzultzeko ordua, nahikoa lan egin dudala. Baina benetan da lan polita eta merezi du jarraitzea, Aljeriak ahalik eta laguntza gehiena beharko du eta aurrera ateratzeko.”

# Web gunea erabat berritu dugu

Laugarren urteurrenarekin batera, web gunea goitik behera berritu dugu. Azken urte eta erdian hartu duen martxa ikusita, eta erabiltzaile kopurua biderkatu egin dela kontuan hartuta, Baleike Kultur Elkarteak erabaki zuen merezi zuela ahalegina egitea. Web gune berriari multimediarik garrantzi handiagoa eman zaio, bideoak eta argazkiak egokiago ikusi ahal izateko. Horrez gain, erabiltzaileen parte hartzea errazteko bide berriak jarri dira. Gainera, Zumaiako gida komertziala, iragarki merkeak jartzeko aukera, eta beste hainbat berrikuntza dakarzki.





## Argazki rallya, surf txapelketa eta Zakila Bira

Olarro Eguneko argazki rallyko lan onenak ikusteko aukera duzue, propio sortutako galerian. Zumaiako Surf Txapelketako eta Zakila Birako argazki erreportaje zabalak ere aurkituko dituzue multimedia atalean, argazkien karpetan.



IGNACIO DEL RIO



## Blog komunitatea, handitzen

Baleikeko blog komunitatea handitzen ari da pixkanaka. Azken asteotan, plaieroei buruzko bloga, Zumaiaiko arkitektureari buruzkoa –Paolbidia–, Inda Mendirena eta Zumaiaiko Ezker Abertzalearena zabaldu dira.



**INKESTA**  
**Zubi berria jarri dute Narrondo ibaian.**  
**Zer iruditzen zaizu?**



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 862620

*"Muagi"*

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 03497 Alta Mari, 3. bulegoa tel. 943 861 631



**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 806 364 149

**Nikol**  **Enea**

TABERNA

Amaiako plaza



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alel Auzalegia, 14 • Arranitz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbi@okas@euskaltel.net

*Ostolaza*  
Altzariak

Juho Erabide bilaketa, 1  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
modulosekolaz@euskaltel.net

Tel./Faxa: 943 84 13 25



**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Kortu Industriaren, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 52 68 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: ost@ostolaza.com

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta lindaketa

Basak, 3-A tel. 943 861 670

**SOLOZABAL AUTOESKOLA**

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean.
- Klase teoriko ikusentzuzkoen abantailak erabilita.
- Merkantziak eta bidelariak garraitzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.



P. Etxezarreta, 10 bis tel./faxa 943 861 416



**Zapaia**  
Taberna

Embera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973



**TXINGURRI**  
Koop. Elk.

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

Loradenda  
tel. 943 861 180

Lorazaintza  
tel. 943 860 778  
655 703 343

**Urola 2000, s.l.**  
Aroztegia

- \*Ereiluntzen alabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritza
- \*Enbarkazio konporketa
- \*Alo, zokalo, terma eta pertsiarenak
- \*Armarri erretretuen auzoakidea
- \*Aroztegi instalazioa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



**Xanti**

ALZARIAK S.L.

Xanti Osa  
Arantxa Azkue

Amaiako plaza, 13  
tel. 943 860 914  
437 794 153  
Denda: tel./faxa 943 842 385

# ALIZIA PEREZ ETXABE

(eta 4)

ABELIN LINAZISORO

## Anaia eta ahizpa zuk zaintzen al zentituen?

Bai, ama hil eta geo, pixka bat lasaitzen hasi giñanian. Ze, ama hil zan eta handik hamabost egunea amama hil zitzakun eta gu oso gaixki eon giñan hospitalian. Kuarrentenan. baina amamak ere gaitza harrapatu zun eta osaba Pedro bakarrik geatu zan bi txikixakin. Gure ama

## Bueno, zuek hamalau urtetik aurrera mutilakin-eta normal hasi zineten, ezta?

Bai, makalak giñan gainea!

## Dantzan ere bai?

Hori bai. Hori bai, e! Nei dantza ez kendu! "Hijas de Maria"tik bialdu eta dana egin zien, baina nik dantzan segi nun. Eta gaintekan presidenta gure etxea juan zan esanez handik aurrera dantza ein gabe eoten banitxan, berriro "Hijas de Maria"n ametituko ziela. Ba al dakizu zer esan zixon gure izekok?: Hara!, nik ez dixot esango dantzan ez eiteko, ze, dantzan dabilela aurrian ikusten det, eta beak hala nahi baldin badu, nik ez dixot kontra ingo. Beste gauzik ez gendun-da! Dantza eta dantza. Eta behin ere ez nax atzean geatu, e! Gainea, guk zer genekin, ba? Ezer ez. Orduan uste gendun muxu bat nahiko zala haurdun geatzeko. Pentsa zazu. Guk lagunak pila genduzan. Eta jende gaizto honek esaten zun: Hoixek! Hoixek edozeinekin ibiltzen ittun! Mariñelakin ere bai! Baina, guk zer eiten gendun, ba? Bildurra gendukan, ba, etxea

“Handik aurrera dantzan ein gabe eoten banitxan, berriro “hijas de maria”n ametituko ziela.

Ba al dakizu zer esan zixon gure izekok: hara!

Nik ez dixot esango dantzan ez eiteko. Beak hala nahi baldin badu, nik ez dixot kontra ingo.”



berandu ailegatu ezkeo: Baina, non con zeate oain arte!? Surtako gantxua hartu eta kanga!, buruan.

**Normalean garaiz ibiliko zineten orde.**

Bai, Goiko Plazan musika bukatu eta etxea. Batzuetan berriketan geatuko giñan, baina... Geo, nobixuakin gabeko zinea juten hasi nitxan. Gabeko hama-bitan bukatzen zan. Orduko nik ja 19 urte nittun eta izekok ez zian ezer esaten. Bueno, pixkat berandatu ezkeo: Bada ordua etortzekua, esaten zian, baina haserratu gabe. Ondo. Eta nobixuakin hasi baino lehen lagun pila izan nittun, zumaiarrak eta Zumaitik kanpokuak. Eta soldauak etorri zianian ere, haixekin lagun ein giñan.

## Zer soldadu etorri zian?

Ba, nik orduan 16-17 urte nittun, ba, 1. 945-46a izango zan, ba, hamen Zumaiaran eta Zautzen-eta mendixak bijilatzea etorri zian. Oaindikan makisak zebiltzalakuan-edo. Makisak... Gure anaixa Bitor makisa izan zan. Bitor eta Luis lanak eiten jarri zituen. Luis betiko galdu zan eta Bitorrek ospa ein eta makisan sartu zan. Kataluñako mendixetan. Azkenian guardia zibilak-edo harrapatu zuen eta abixatu ziguen kartzelian zeola. Hogeit urte zezkan. Ene, Jesus!, gure izekok. Baina, aiuntamentuko sekretaxua, batzuek esango due hau zala eta bestia zala, guretzako oso jatorra izan zan. Gure izeko jun zitzakon eta honela eta honela kartzelian zeola. Usted tranquila -esan zixon- que ya saldrá el chico. Halako batian: Ya está casi fuera, esan zigun. Hura goizeko lauretan laga zuten kanpuan. Leridan. Elur pila men zeon. Hark bazter haixek ondo ezagutzen zi-

ttun eta zuzenian estazixoa jun men zan. Han trena hartu eta Donostira. Donostitik Zumaira. Estazixuan Juanita Kiriki<sup>1</sup> men zeon. Gaua zan. Atia jo dute. Guk ixildu "Radio Pirenaica" eta, ixo! Atia ireki deu eta... Gure mutila! Bitor! Sartu barroa!, sartu barroa! Ezpainetan zigarrua piztuta zekan eta hitz eiteko indarririk ere ez zun. Eta nola aileatu haiz, ba, gure etxea?, izekok. Nada -erderaz- he bajado en la estación y he visto a una mujer con caramelos en el andén y le he preguntado: ¿Sabes donde viven los de Nikol? -No voy a saber? Ven conmigo. -Y me ha traído hasta aquí. Denbora guztixan atzea begiratu eta atzea begiratu etorri men zan. Izugarritzko bildurra ekarri zun hark.

### **Etxean, orduan, "Radio Pirenaica" entzuten zenuten.**

Bai, eta ixil-ixilkan, baezpaere. Jendiak arpegira ez zigun ezer esaten, baina nahiko diskriminatuta eon giñan. Betiko jendia, badakizu, baina lagun onak genduzkan, Portenekuak, kaldesenekuak, baserrikuak... Gaztiak giñan eta guk beti ere aurea eiten gendun. Gaizki ez giñan bizi, baina ondo ere ez. Badakizu herri txiki hauetan zer pasatzen dan, hori horrelakua dala, hura halakoa...

### **Nola akordatzan zera zu San Telmoekin?**

San Telmuak bonba bat zian guretzat! Dantzan eten gabe! Musika hasi eta akabatu arte! Alparketak zizko einda, baina hantxe dantzan gabeko hamabixak arte. Jo eta fuego! Nik lagun haundi bat neukan, oaindikan ere Inglateratik harremak dazkau, eta dantzan ai giñan batian,

1. Orain Kalari taberna dagoen tokian, denda zeukan Juanita Aldamusu-k, Kiriki bezala ezaguna, berak saltzen zituen abeliñak, urrak eta abarrei, "Alimento kiriki!" deitzen zielako.



bixok mutilakin, etorri da bere ama, iletik heldu ixo eta: Fuera hamendik! Etxea eraman zun. Hark zeukan jenixua! Hurrengo egunian ere ez zula ertengo eta nei ematen zian kulp. Nik zeatikan dakat kulp bearek ere dantzan ein nahi du-ta!, esan nixon. Gau hartan beste neska batekin alkartu eta bixok mutilekin ibili giñan dantzan. San Telmuak beti dantzan pasatzen nittun. Oain ere, Arrate Irratia jartzen det eta eskuakin edo hankakin ritmoa eamaten ibiltzen nax. Orduan gainea, San Telmuetan, hiru egunian izaten zan dantza. San Telmo bigarrena eta hirugarrenian ere bai. Gauetz bakarrik.

### **San Telmoak = Dantza zan zuretzat.**

Bai, neretzat, eta... gure gizonentzat?! Bueno! San Telmuak beriak zian! Kale hartantxe bizi zan-da. Nobixotan San Telmo egunian mutila neskaen bila etorri beharrean, neuk jun bihar izaten nun San Telmo kalea bere bila. Egun batian, bost t'erditan jungo nax zure bila, esan zian. Etorri da ordua, baina han ez zan inor azaltzen. Pasatu nax kofraitik, eta zea, mutila dantzan harripatu nun! Bezpeatikan hasten zan hura festakin eta harei San Telmotan pakian laga. Ezkonduta gero ere hura erretiratu ezinik ibiltzen nitxan. Urte guztixan txintxo-txintxo ibiltzen zan, txikiteoa eiten zun, normala, baina ordurako beti itxian izaten zan. Ondo. Baina San Telmuetan...

### **Orduan, zuretzat San Telmoak haundiago ziren San Pedroak baino, ezta?**

Ez. Gure itxian San Pedroak zelebratzen giñuzen. Badakizu, sasoi hartan San Telmuak askoentzat aste eguna zan. Gure León-eta San Telmuetan lanea junda dabe. Egun batian alemanenian (Otto Holke tailer mekanikoa) zantzixua jaso zun San Telmo egunian

lanea ez juteatikan. San Pedroak Zumai gutzirako zan, kanpotik etortzen zian, baseritik jexten zian... Gure itxian San Pedro egunian jende asko eukitzen gendun. Geo, kantatu ere asko eiten gendun. Festa haundixa izaten zan hura. Asko kantantzen zan orduan: Tabernetan, itxian, kalia... San Telmuak geo indartu dia.

### **Festa handienak San Pedro-tan, orduan.**

Bai. Hiru egun jai izaten zan. Tiobibuak etortzen zian, musika... Egun batian er ten deu kuadrilan eta sastrieneko denda aurrian (orain Caja Laboral) erretirata zeon bere dekoratuakin. -¿*Quereis sacar una foto?* -*Sí*, gu danok. Atea diu erretirata eta dirua eskatu ziun. Pezeta bat uste det. Guk danon artian ez gendun ezta perro-txiki bat ere! Ahora mismo llamo al aguazil!, hark. Guk, bat Arru kalea, bestia Foronda, bestia Goiko Torre... aide eerra eman gendun. Ospa!

### **Asko izaten al zineten San Pedro egunian?**

Bai, gu etxequak, osaba eta izeko, Piko-tekuak, Txindurrikuak, Tolosako izeko... asko juntatzen giñan. Kantatu ondoren, eta dirua baldin bazeon, tiobibota juten giñan. Osaba Manuel ere Pasaiatik etortzen zan, hari gerra ondoren ez zixuen laga Zumaixan sartzen, hamen bertakuak. Urte batzuetan Pasaian geatu behar izan zun. Osaba Pedrori laga zixucen eta Osaba

Martin "Pena de muerte"kin con zan eta geo "Cadena perpetua"kin, Burgosen. Eta hura libratu zan, ba... nik hamalau urte izango nittun, ba... 1.943an. Sei urte ein zitun kartzelan. Oso maittia nun nik hura. Konsejo azpizan ikusi nun aiuntamentua juden. Osaba Manuel ez dakit nun con zan preso, baina osaba Pedro Teruelen trabajadorietan ibili zan. UGT-kuak zian.



### Elizara joaten al zineten?

Jun beharko! Gure amandria bizi zan bi-tartian jun beharko! Hura egunero juden zan. Giroa halakotxea zan eta ni izekokin jaixetan juden nitxan.

### Eta hilero aitortu, jauna hartu eta hori?

Ez da pentsatu ere! Hori ez. Gu gorri-gorrixak giñan. Pentsa zazu, gure aittak León bataixatu gabe zakan. Gerratik etorrita geo bataixatu ein behar izan gendun, bestela Francok ez zixon ezer ematen. Ez pape-lik eta ez ezer. Pasaian bataixatu gendun hura. Eta aittak nei juxtu-juxtu laga zian komunixua eiten, eta hori guardia zibilen semia zala. Gure aitta bera ere guardia zibila zan, baina hark guardia zibiletatik Bitor jaixo zanian erten zun. Gure aittak, nonbait, ez zun nahi bere idea berdineko jendia kartzelan sartzia. No quiero seguir en el cuerpo, esan men zixon bere aittari. Honek tenientea izan behar zun. Pasaian zeon. Eta honek gure aitta gaztia zanian sartu zun guardia zibil, hark ikusi zun langileen kontra ein behar zula eta: No quiero seguir! Orduan Zautzen men zeon kuartelen burua eta Zautza ekarrira ibili men zuten. Alperrik. Gure aittak: Yo a mis compañeros, a la gente obrera no les voy a meter a la cárcel. ¡Yo no!, bere aittari. Harrezkeo biájante bezala hasi zan eta geo Alfa-n sartu zan. Nik Alfa-n ezagutu nun.

### Akordatzen al zera lehenbiziko jaunartzearekin?

“Beitzen det inpernupera eta pareja bat zeon, hixketan eta muxuka. Eleiza txin-txintxo juden dian hoixetakuak zian. Haixek han zaben, hor konpon!, baina geo guri ez esan gaizktuak giñala!”

Bai. Gerraurrian izan zan. Zazpi urte nittun. Baina gaixotu ein nitxan. Orduan komunixua eiten zuenei premixua ematen zixuen, txokolatia-eta, eta geo Andre Maixan funtzixo txiki bat eiten zuten. Eta ni jun ezin.

### Beraz, zuk elizako sermoiak, gogojardunak eta giro hori ez zenuen eza-gutu.

Ez, ez. Nik nunbait, aitten kasta ekarriko nun. Amandria bai, oso elizkoixa zan, baina izekok nei libre laga zian. Gu Zumaixan apartatuta gabezen, dantzan mutilakin eiten gendulako, mariñelakin hixketan eiten gendulako, lagun asko

gendukalako, eleizara ixa ez giñan juden... Gaiztuak giñan gu. Eta ni Juanitokin hasi nitxanian, ostiral santu egunian lapa janak-eta eiten zian, eta nei lehengusu batek abixatu zian: Mira, voy a Zumaya, porque Roberto no está aquí. Eta nik esan nixon: Sí ven, porque me ha dicho el novio que el jueves y viernes santo los novios suelen estar apartados. Etorri da neska hori eta pasiarra erten gendun. Zumaiko paola erakutsiko dizut,

esan nixon. Lehen paolea gora jutia libre zan eta askotan juden giñan. Jun gea gora, marea beian zeon, eta halako batian beitzen det Inpernupera eta pareja bat zeon, hixketan eta muxuka. Eleiza txin-txintxo joaten dian hoxetakuak zian. Gabian nobixuai esan nixon: Aizul, honelako eta honelako ikusi ittuk Inpernupen, haixek ez dia dantza juden, eta nei ez laga aste santuan bakarrik! Haixek han zaben, hor konpon!, baina geo guri ez esan gaiztuak giñala! Horretan diskriminazixo haundixa euki gendun.

### Lapa janak eiten jarraitu al zuen Juanitok?

Bai, baina nerekin ere ertentzen zun. Mol-datzen giñan. Geo, gaixotu ein zan eta... Baina gaixo bezela ere izugarri ona zan, ez zan sekula kejatzen, azkenengo egun arte lanea juden segi zun hark. Gizon oso ona tokatu zikan. Ahaztu ezinekua. Eskerrak gizona hil eta segituan ezkondu zan gure alaba. Umia segituan izan zuen eta hartxek salbatu niñun ni. Umiak itxia asko pozten du.

### Lanean, Hotel Amaya-n ere ibili zinen, ezta?

Bai, neskame. Uda hantxe pasatzen gendun. San Pedruak pasata hasi, setienbreko Ama Berjiñak pasatu arte. Baina hotela ireki baino lehen nagusixak deitzen zigun hotel dana garbitzeko. Debalde. Geo, batian bakarrik paatzen zigun. Tenporada



**ZUGAZTI**  
A U T O A K

**Peugeot**  
Agentzia ofiziala

Santiago auzoa, 2 tel./faxa 943 860 201



**Zalla**

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oñasko erreak

Urtx. Plaza 3 • 943 86 23 81 ZUMAIA



**ZUMAI**  
AUTO-ESKOLA

- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- **GURE HELBURUA:**  
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA



**zapateixa**  
Konponketak

*Milano Uleanga*

Oinetako eta errapa konponketak  
Produktu eta material ekologikoa

Zurbilo kalea 8 • 20750 Zumala • 943 861 252 • 852 717 748



**Zumaia Hotela**  
-Autokorrekzio Metodologia-

Airi ezarlegia, 20750 Zumala tel. 943 143 441 faxa 943 860 161



**Zerbitzu Ofiziala**  
**ZUMAIA MOTOR**

Santiago auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

**Zumaia optika**



Txomin Agirre kalea, 6 tel./faxa: 943 143 057

**Dieta bat behar duzu?**



Zumea

- ✓ Obesitatea / Gainpiasa
- ✓ Argitasuna
- ✓ Hipertentsioa / Kardiopatia
- ✓ Trigliceridoak / Kolesterolo
- ✓ Anemiak
- ✓ Haur indutzioa

**Elixabete Arano Manterola**  
Giza elikadura eta dietetikari diplomadua  
Obesitatean, haur nutrizio eta kirol nutrizioan espezializatua

Juan Belmonte, 10, behea tel.: 943 117 933



**TXALAPARTA**  
OPARIAS

Argita. Ansoa, 2  
20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)  
tel. 943 143 089  
fax. 943 860 427





akabatzen zanian. Eta orduan ere izaten zittun aitzakiak hark: Jende gutxi etorri zala hotelea, ontzi asko puskatu giñuzela... Dana, gutxixo paatzeko. Eskerrak zinea debalde juten giñan. Atzeko alde-tik butaketako kumunetaino bidia zeon. Egun batian nahastu gea eta pantailaren beste aldian azaldu giñan. Jende gutxixa akordatu zan gu han gebiltzala!

#### **Senargaia egin aurretik zuek neguan Goiko Plazan eta udaan Beheko Plazan ibiliko zineten dantzan, ezta?**

Bai. Gu ez giñan Zautza juten. Batian jun giñan eta bertan borrokan ein gendun. Gure aldian Zautzko neskaak “señorítak” zian, guri goitik behera beitu eta batek zeoze esan digu, haserratu gea eta guardasolak aidian ibili zian!

#### **Azkeneko bi galdera. Zuen amak nola ezagutu zuen zuen aitta?**

Niñera ibili zan hura Donostixan. Tolle-neko hauen amakin batea. Arrue-tarren umiak zaitzen. Han ezagutu zian alkar.

#### **Nola hasi zinen Juanitorekin?**

Ni Zumaiko beste mutil batekin enamoratuta neon eta hura askotan etortzen zikan dantza eitea, baina ez zian ezer esaten, geo beste neska batekin zebilela ikusi nun. Oso guapa zan. Hurrenguan ea zinea jungo giñan esan zian, ez nixon kasuik ein. Gure balkoitik Goiko Plaza ikusten zan eta han Juanito ikusten nun

“Dantzan asko eiten gendun eta nahiko parre eiten nun nik. Lagunak esaten zien: hi zeatikan ibiltzen hax egunero nobixuakin? –Zeatikan ez? Gustora ibiltzen gaittun gu bixok.”

gure Bitorren bila etortzen zanian, oso lagunak zian-da. Haixek alkarrekin kafia hartu eta Zauta juten zian fubola ikustea. Egun batian izekoí esan nixon: Mutil horrek beti goraka beitu eiten dit. -Neska, beitzeko goua izango din-da. Behin batian, Hotel Amayan han bertako jendientzat berbena zan, baina guk zineko atian eiten gendun dantza. Berbenako musika aitu eta kanpuan dantzan ein. Halako batian etorri zikan Juanito dantza eske, nik aituta neukan soldautzatik oso guapo etorri zala, ondo kantatzen zala eta horrela, eta hala, ba, dantzan ein gendun. Handik egun batzuetara papelito bat eman zian gure Bitorrek: Hau Juanitok eman dit. Ea alkarrekin hasiko giñan eskatzen zian. Pepita Kaldesei esan nixon: Neska, hau eta hau, baina nik bestiakin nahi diñat. -Ez ixon kasuik ein hari, hura

fantasma den-eta, eta Juanito jatorra. Ni hasieran nahiko duda, bai eta ez, ibili nitxan, eta Pepitak: Neska, esaixon behingoz baietz mutil horrei, bestela ahitu eingo zan-da! Horrela, Bitorrekin karta bat bialdu nixon esaten kuadrilakin er-tengo nula eta honelako tokitan congo giñala. Hamar neska giñan, ni izkiña batian neon, bai etorri ere aguro! Nire aldamenian jarri zan. Baina Zautza fuo-lea juten segi zun eta egun batian esan nixon: Juanito, zuk nerekin ibili nahi baldin badezu, fuola fuera, e! Ni ez nax jaiero zu noiz etorri zai congo. Halaxe hasi giñan, aurrena kuadrila danakin. Zinea juten giñanian, txut, aldamenian jartzen zikan. Geo, kuadrilatik apartatzen, apartatzen hasi giñan. Eta ja gehixo ez giñan apartatu. Dantzan asko eiten gendun eta nahiko parre eiten nun nik. Lagunak esaten zien: Hi zeatikan ibiltzen hax egunero nobixuakin? -Zeatikan ez? Gustora ibiltzen gaittun gu bixok!

#### **Ez zen ohikoa egunero irtetea garai hartan.**

Ba, gu, egunero. Paol aldera pasiarra juten giñan. Eta gabeko zinea juten giñanian, bueltan gure entradan beste pareja bat eoten zan eta gu kanpuan txanden zai, haixek bukatzen zuenian gu barrura. Hiru muxu emateko.

**Bueno, nahiko berriketa egin degu. Baietz esango nuke. ■**

# URRIA-AZAROA

## Deialdiak

- Azaroak 10-13  
22:00etan Aita Mari zinean, Zinema Sozialeko Zikloa.
- Azaroaren 17tik 23ra  
MUSIKA ASTEA
- MUSIKA MAKETENTZAT  
DIRULAGUNTZAK: oinarriak kultur etxean. Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea: azaroaren 24a.
- KLARINETE MARATTOIA:  
azaroaren 27tik 30era
- ASTEBURU MIKOLOGIKOA:  
urriaren 24tik 26ra Alondegian.

## Ikastaroak

**Tel: 943-861056**  
**foronda@zumaia.net**

- TAI-CHI: Errefortzu saioa.  
Urriaren 9an hasita. Ostegunetan  
18:00etan. Izen ematea: 30 euro.
- HAUR PLASTIKA TAILERRA:  
Urriaren 6tik maiatzaren  
27ra. Astelehen, astearte  
edo asteazkenetan, 17:30etik  
19:00etara. Matrikula: 110 euro.
- ESKULANAK: Astearte eta  
asteazkenetan. 10:00etatik  
13:00etara eta 15:00etatik  
18:00etara. Bilerak: urriaren  
1ean 16:00etan Alondegian.
- YOGA: Astearte eta ostegunetan  
18:30ean kultur etxean.
- PINTURA TAILERRA: Astelehenetik  
ostegunera. Urriaren 1etik  
aurrerak. Antolaketa bilera:  
irailaren 25ean 19:00etan
- HAUR ETA GAZTETXOENTZAT  
PINTURA TAILERRA: urriaren  
14etik abenduaren 18ra.  
Alondegian; astearte eta/edo  
ostegunetan, 17:30etik 19:00etara.  
Bilerak: urriaren 9an, 18:00etan.
- KUTXA GELAK :  
Nazioarteko Sukaldaritza:  
indiarra eta arabiarra.  
Oporretako argazkiekin  
DVD bat egitea.  
Informazioa eta izen ematea:  
www.kutxasocial.net edo  
902540040 tel.zenbakian.
- K.Z.Gunea: Internet ikastaroak.  
Informazioa: 943-862866
- BIZIKLETAZ IBILTZEN  
IKASTEN: Urriaren 6tik 10era.  
Izen ematea: 656728085
- EUSKARAZ HOBETO  
IDAZTEKO IKASTAROA:  
Oinarriko datuzki I: testu laburrak.  
12 ordu, larunbat goizetan, urrian.

Oinarriko datuzkiak II: testu  
landuagoak. 12 ordu, larunbat  
goizetan, azaroan. Argibide gehiago  
eta izen-ematea Euskara Zerbitzuan.

## Erakusketak

### Alondegia aretoan

- Irailaren 26tik urriaren 12:  
OLARRO EGUNA-2007KO  
rallyko argazki onenak

## TURISMO BULEGOAK ANTOLATUTA

**(Tel. 943 143 396)**

### Urria

- Larunbata, 11:  
16:30etan "Hegaztiak ikusteko  
irtenaldia itsasoz" bisita gidatua  
12 eta 26 igandeak:
- 11:30etan "Zumaia-Deba-Zumaia  
txalupaz ibilbidea" bisita gidatua  
Larunbata, 18:  
11:00etan "Hegaztiak ikusteko  
irtenaldia oinez" bisita gidatua  
16:30etan "Zumaia bisita eta  
ibilaldia txalupaz" bisita gidatua  
Larunbata, 25:  
10:00etan "Irteera Geologikoa  
eta txalupa" bisita gidatua

### Azaroa

- 1 eta 22, larunbatak:  
10:00etan "Irteera geologikoa  
eta txalupa" bisita gidatua  
16:30etan "Zumaia bisita eta  
ibilaldia txalupaz" bisita gidatua  
2, 9, 16, 23 eta 30, igandeak:  
11:30etan "Zumaia-Deba-Zumaia  
txalupaz ibilbidea" bisita gidatua  
Larunbata, 15:  
10:00etan "Marearteko  
zabalgunea" bisita gidatua
- Txangoak:**  
Urriak 18 "Cabarceno Naturaren  
Parkea" ("Parque de la  
Naturaleza Cabarceno")  
Azaroak 8 "Enciso eta Arnedo"

## AGENDA

### Urria

- Ostirala, 10:  
17:30ean haur liburutegian, Miriam  
Mendozaren esku ipuin kontaketa:  
"Mattin eta harri magikoa"
- Larunbata, 11:  
19:00etan Aita Marin, Gipuzkoako  
Euskal Kantu Txapelketa
- Ostirala, 17:  
22:00etan Aita Mari aretoan,  
antzerkia "Grönholm metodoa"

### Igandea, 19:

12:00etan Aita Mari aretoan, haur  
antzerkia MARIE DE JONGH: "ZER  
DUZU NEGARREZ, MARIE!"

### Osteguna, 23:

22:15ean Aita Mari aretoan, zine  
forum: "AL OTRO LADO"

### Ostirala, 31

17:30ean haur liburutegian,  
Miriam Mendozaren  
eskutik, ipuin kontaketa:  
"Pedromairen bidaia"  
19:30ean, Komentuan  
JABIER MUGURUZA  
Antolatzailea: BALEIKE  
KULTUR ELKARTEA

## Azaroa

### Igandea, 2:

19:00etan parrokiari, Tolosako  
Abesbatza Lehiaketaren  
barne, kontzertua: "Prague  
PHILHARMONIC Children's  
Choir" (Txekia)

### Osteguna, 6:

22:15ean Aita Mari aretoan,  
zine forum: "ARITMETICA  
EMOCIONAL"

### Igandea, 9a

12:00etan haur antzerkia,  
MARKELIÑE "Txixarra ta inurria"

### 10etik 13ra:

**22:00etan Aita Mari aretoan,  
Zinema Sozialeko Zikloa:  
"Herri Indigenak"**

### Astelehena, 10:

- Eso viene sucediendo  
(Hori gertatzen ari da)-  
Mexiko 2002 (12 min.)
- Inhaladores (Esnifatzaileak)-  
Australia 2005 (15 min.)
- Mi primer contacto (Nire  
lehenbiziko harremana)-  
Brasil 2005 (56min)
- Soy defensor de la selva  
(Oihanaren defendatzailea  
naiz)- Ekuador 2004 (23 min.)

### Astearte, 11:

- Voces del desierto (Basamortuko  
ahotsak)- Sahara 2005 (58 min.)
- Guatemala tierra arrasada  
(Guatemala lur erraustua)-  
Guatemala 2004 (42 min.)
- Asteazkena, 12:  
- Los más difícil es el amor  
(Zailena maitasuna da)-  
Norvegia 2005 (25 min.)
- Sueños binacionales (Amets  
binazionalak)- Mexiko  
2005 (30 min.)

- La cabalgada espiritual (zaldizko  
mamuk)- AEB 2004 (60 min.)  
Osteguna, 13:

- El precio del perdón  
(Barkamenaren prezioa)-  
Senegal 2001 (87 min.)

### Ostirala, 14:

22:00etan Aita Marin, antzerkia:  
Maite Agirre eta Ander Lipus  
"Putzuak lehortzen"

### Astearte, 17:

22:00etan Aita Marin, komentuan,  
Improntus elkartean "Chopin  
eta pianoa" ikuskizuna.

### Osteguna, 20:

22:15ean Aita Mari aretoan,  
zine forum: "ANTES DE  
QUE EL DIABLO SEPA  
QUE HAS MUERTO"

### Ostirala, 21:

19:30ean Komentuan, Beheko  
Plaza Abesbatzaren kontzertua  
Larunbata, 22:

19:00etan Xixili eguna dela eta,  
Udal Musika Bandaren Kalejira.  
Ordu berean, San Pedro  
Abesbatzaren kantu-kalejira

### Osteguna, 27:

19:30ean komentuan, Improntus  
elkartean "Beethoven  
eta sinfonia" ikuskizuna.

### Ostirala, 28:

17:30ean haur liburutegian,  
Miriam Mendozaren eskutik,  
ipuin kontaketa: "Euskal  
Herriko kontu zaharrak"

19:00etan Alondegian, MUGARRI  
ESTALIAK (poesia eta musika)  
Antolatzaileak: BALEIKE KULTUR  
ELKARTEA eta TXINPARTA  
EUSKARA TALDEA

### Larunbata, 29:

Iluntzean, Udal Musika Bandaren  
XIXILI EGUNEKO KONTZERTUA

## Alkoholiko Anonimoak

Bilerak asteartetan 20:00etan  
eta larunbatetan 19:00etan,  
Udaltzaingoaren ondoan.  
Telefonoak: 629141874  
/ 943248474

## Alkoholikoen Senideak (Al-Anon)

bilerak asteazkenetan  
20:30ean eta larunbatetan I  
9:00etan, parrokiako etxean.  
Telefonoa: 650265963

# Karidadeko bentaren DVDa laster salgai!

BAZKIDEEK  
**DOAN!**  
JASOKO  
DUTE



zure-iragarkia zumaiaetik euskal herrira  
baleike.**iragarkilaburrak.com**

saltzeko • erosteko • eskaintzeko • eskatzeko • aurkitzeko...

**zure-azoka**

# Casa BASUSTA

CASA  
BASUSTA  
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,  
Lore-zentruak, Koroak,  
Landare naturalak eta artifizialak,  
ZeramiKa-ianak eta zunezko saskiak

*Etxez etxeko zerbitzua*

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611

Eraikin bat, pertsonaren nahiekin bat egiten duenean,  
bera etxe bihurtzen da.

GRUPO ORMAK enpresak duen aurre-espenentzian proiektu  
berri bat gehitzen zaionean emaitza San Juan 8 da, etxebizitzaren  
multzo bikaina, Zestoako erdigunean kokatuta eta naturarekin  
harreman zuzenean dagoen ingurune zoragarria.

## Zestoa

San Juan 8  
sustapena

*zure etxebizitzarako  
leku aproposa*



Argibidea eta salmentak:

**943 424 430**

[www.ormak.es](http://www.ormak.es)

Sustatzailea:



Ormak

Erakiltzailea:

